Osakidetza
EMERGENTZIAK
EMERGENCIAS

PAZIENTEEN TRANSFERENTZIA OSPITAL E ARTEKO LEKUALDATZEETAN. "IDEAS" METODOA.

Egileak: A. Sáenz-Azkunaga Guerrero, I. Virtus Aldanondo, A. Maestu Torres,
J. Fernandez Martinez, K. Uribarri Urresti, A. Marín Tamayo

SARRERA

Gure eremuan, pazienteen transferentzia zera da: osasun arloko profesionalen artean informazio kliniko garrantzitsua eta pazientearen arretaren gaineko erantzukizuna eskualdatzen duen prozesua. Transferentziaren helburu nagusia zainketa asistentzialen jarraipena bermatzea da, pazientearentzako ahalik eta segurtasun eta kalitate handienarekin. Horretarako transferentzia-sistema estandarizatuak ezartzea gomendatzen da.

HELBURUAK

Profesionalei osasun eremuan egiaztatutako tresna eskuratzea, komunikazio eraginkorra hobetzeko. Pazientearen transferentzian, taldeen eta osasun arloko profesionalen arteko komunikazioa estandarizatzea.

METODOAK

Diseinua literaturaren berrikuste sistematikoa egitean datza, PUBMED, CINAHL, CUIDEN Y BIREME (LILACS), BDIE eta COCHRANE LIBRARY datu-base elektronikoetan egindako kontsulten bitartez. .

EMAITZAK

2013an, Medikuntza Intentsiboko Aldizkari Elektronikoak (REMI) "IDEAS" metodoa argitaratu zuen. Pazientearen transferentziaren estandarizaziorako Checklist-a da, 5 puntuz osatuta dago eta arretaren jarraitutasuna ahalbidetzen duen gutxieneko datu-multzoa bermatzeko beharrezko informazioa dauka.

IDEAS

PAZIENTEEN TRANSFERENTZIA

Pazientearen transferentzia sistematizatuak eta ordenatuak komunikazioaren eraginkortasunari laguntzen dio eta, beraz, era positiboan eragiten du pazientearen segurtasunean.

I — IDENTIFIKAZIOA

Pazientearen arduraduna den profesionalaren identifikazioa. Pazientearen ardura hartuko duen profesionalaren identifikazioa. Pazientearen identifikazioa.

Nor da pazientea?
Nortzuk dira pazientearen arduradunak?

D — DIAKNOSTIKOA

Uneko arazoaren (arretaren xedea dena) definizio argi eta estandarizatua, baita aurrekariak, garrantzizko gaixotasun kronikoak, tratamendu garrantzitsuenak eta alergiak ere.

Zein da arazoa?
Aurrekariak?
Alergiak?

E — EGOERA

Pazientearen bizi-funtzioen azalpen labur eta ordenatua, dauden alterazioak azpimarratuz.

Nola dago orain pazientea?
Zer sintomak ditu pazienteak?

ARNAS FUNTZIOA ETA HEMODINAMIKOA, INMUNOLOGIKO-HEMATOLOGIKOA, LOKOMOTORA. AZALA, DIGESTIBOA-ENDOKRINOA, GILTZURRUNETAKO-METABOLIKOA, NEUROLOGIKOA.

A — AKTUAZIOAK

Hartutako neurri terapeutikoak eta egiteko daudenak sartzen dira, baita jarraitu beharreko ekintza-plana ere.

Zer egin da orain arte?
Zer egin behar da

ARNAS SOPORTEA, FARMAKOAK, BENA SARBIDE, SONDAK, TEKNIKAK ETA INSTRUMENTALA, FROGA DIAGNOSTIKOAK.

S — SINTOMAK

Pazientearen alterazioak kontuan izanik, arreta berezia behar duten alderdi garrantzitsuenen (gakoen) laburpena. Puntu garrantzitsuenak gogorarazi, alergiak barne.

Adi egon....
Gogoratu....

GOMENDIOAK

- Pazientearen Transferentzia leku egokian egin behar da, intimitatea eta konfidentzialtasuna bermatuz.
- Transferentziako lekuak arreta eta asistentzia ziurtatzen dituzten errekurtsoak eduki behar ditu.
- Informazioa, txostenak eta erabiliko diren tresna guztiak aldez aurretik prestatuak egon beharko lirateke.
- Transferentzia pazientearen aurrean egin behar da. Pazientea pediatrikoa edo muga kognitiboduna izango balitz. familiar edo tutore baten aurrean egin beharko litzateke.
- Elementu garrantzitsuen ulermena egiaztatu.

OSPITALE ARTEKO LEKUALDATZEETAN

- Idatzizko dokumentuak eskatu:
  - Txosten medikuak.
  - Erizainanren txostenak (azken konstanteak, erabili diren, erabiltzen ari diren eta erabiliko diren medikamendu guztiak).
  - Pazientearen arduradunaren presentzia eskatu.
  - Medikazioa egiaztatu (farmakoa, dosia, diluzioa, ordua, etb…).

ONDORIOAK

Pazientearen transferentzia sistematizatuak eta ordenatuak komunikazioaren eraginkortasunari laguntzen dio eta, beraz, era positiboan eragiten du pazientearen segurtasunean.

Ospitalez Kanpoko Emergentzia Zerbitzuetako pazienteen transferentzietarako modelo estandarizatua izan dadin behar diren ezaugarrietako asko biltzen ditu IDEAS metodoak.

Hori dela eta, metodo hori Osakidetzako Emergentzi Zerbitzuetan ezarrita dago eta Pazientearen Segurtasun Taldeak haren erabilera gomendatzen du.

BIBLIOGRAFIA

1. Delgado Morales R. IDEAS para mejorar la transmisión de la información clínica. REMI (2013):13(4) **2.** OMS 2007. Soluciones para la seguridad del paciente – Solución 3 – Comunicación durante el traspaso de informaciones sobre la salud de los pacientes **3.** The Joint Commission, Joint Commission Internacional.(2007, mayo).Comunicación durante el traspaso de pacientes. Soluciones para la seguridad del paciente (vol.1, solución 3).

Osakidetza
EMERGENTZIAK
EMERGENCIAS
PAZIENTEEN TRANSFERENTZIA
"IDEAS" METODOA
KOMUNIKAZIOAREN ESTANDARIZAZIOA